



Euskaraz eraikitzeko zailtasunak

Arkitekturaren hizkuntza grafikoa dela esaten bada ere, ahozko eta idatzizko eremura etorrira, diglosia nabarmena da gure honetan.

Jakintza-arlo honen inguruan euskaraz argitaratzen den aldizkari bakarrean, *Aldiri Arkitektura eta abar*-en, sarritan azaldu izan duten modura, jardunean urteak daramatzaten profesionalak badauden arren, (2 hamarkadatik gora euskarazko adarrak) oraindik ere trabak daude %100ean euskaraz lan egiteko.

Alde batetik oso nekoso izaten da eraikuntzaren esparruko lanetan proiektuak euskaraz idaztea. Hegoaldean, estatuko legediari egin behar zaio erreferentzia, gaztelera hutsean dagoena, noski.

Horren aurrean, EHUK euskarazko bertsioa atera zuen... kobratuz. Ez da kopuru desorbitatu bat, eta ziur egileek asmorik onenarekin egin zutena, baina *Ministerio*ak batzuei dohainik ematen dienagatik, besteok ordaindu behar izatea, gainera Euskal Unibertsitate Publikoari, egoeraren erakusle da. Agian protesta gisa, ez dira gutxi artikulak honen hasierakoa bezalako *Frankenstein*ak entregatzen dituztenak, hots, bi hizkuntzako testu zatiak hala moduz elkarri josiz osatutakoak (Kodea euskaratzeari tarte justua dedikatuz, *denbora es oro...*)

Bestelako zailtasunak ere baditu eraikuntzak. Bai Euskarari sareari erreparatuz, ziurtagiria lortzeko lanak hartu dituzten eraikuntzaren inguruko enpresak geroz eta gehiago direla ematen du (20 inguru dira egun). Ziurtagiririk gabe euskaraz lanean aritzen direnak ere badaude, noski. Baina proportzioan, kantidadea nahiko minimoa da eta hautatzerako orduan beste faktore batzuk ere azaltzen dira, tartean aukera-abanikoarena.

Donostiara etorrira, bertan aurkitzen dira kontutan hartu beharreko hainbat erakunde, tartean Arkitektura Eskola edo Arkitekto Elkargoa. Institutio hauen hizkuntza-eskubideekiko jarrera beste arloetako tankera berdinekoena da: "teorian bai, baina..." Hauetan ere, *inertiak* erabiltzen dira aitzakia gisa. Baina hara non berdina pasa den duela urtebete eskas martxan jarritako Euskadiko Arkitektura Institutuarekin: zuzendari bila dabil *right now* eta hautagaiei ez diete inongo euskara-mailarik exijitzen. (Ingeles-mailarik ere ez, hiri *kosmopolita* honetarako harrigarria dirudien arren. Jaurlaritzako lehendakari-ohirik kanpoan ez uzteagatik agian?)

Ogibidearen beste muturrean, partehartze-prozesuak leudeke. Bileratan ia beti dago gaztelera (ere) egitea eskatzen duen bat. Orokorrean ikusi izan duguna da Udalek 3 modutara ebazten dutela kontua: guztia euskaraz egin eta kitto, guztia errepikatu, lehenik hizkuntza batetan, gero bestean, edo guztia gaztelera. Ikusi izan duguna da baita ere, edonola ere beti sufritzen duela baten batek. Gure momentu trajikomiko partikularra aurkezpen bat modu inprobisatuan gaztelera behar izaten dugunean etortzen da. Horrelakoetan ere, subimos por las *aldapas* y bajamos del *espalo*i. O del *asto*, ez dakit dagoeneko.